

Ardagaiak, historiaurreko «txiskeroak»

**Nagusiki pagadietan agertzen den
onddo honi gizakiak antzinatek
emandako erabilerak galtzear daude**


**ENEKO AGIRRE
(BIOLOGOA)**

Euskal Herriko pagadi helduetan barneratzean, zenbaitetan, zuhaitz gaixoak edo zaharrak aurkitzen ditugu tarteka-marteka. Pagadia bera gutxi ustiatzen bada, ale zaharrez gain, hildako enborrak ere azaltzen dira behe basoa aberastuz. Baina mota hauetako basoak topatzea gero eta gehiago kostatzen da, Nafarroa iparraldean oraindik ugariak izan arren. Baso zahar hauek dira, hain zuzen, gure gaurko protagonistaren bizilekua; eta bere ogibidea egur deskonposaketa da, hildako edo gaixotutako enborrak behar baititu bizitzeko. Argazkian beha daitezkeen zaldi-apao formako txapela duten ardagaiez (*Fomes fomentarius*) mintzatzen ari naiz. Azal gogorra eta egur tankerako egitura duen izaki hau, onddo bat da. Ondorioz, enborrean itsatsita ikusgai dauden egiturak, izaki bizidunaren ugaltzeko organo edo fruitu gorputzak besterik ez dira. Izaia bera, *mizelio* izeneko sare antzeko gorputza osatuz bizi da enborraren barnean. Ardagaia- ren ugaltzeko organoek kolore zuri grisaxka izaten dute eta 40-50 cm-ko diamentrorira irits daitezke. Ez dute hankarik, eta mami larrukara izan ohi dute. Era berean, kanpoko azala oso gogorra izaten dute, eta azpialdea poroz josia izaten dute. Bertatik askatzen dituzte hauts itxurako milioika espora, haizearen laguntzaz, hildako edo gaixotutako enbor batera iritsiko diren itxaropenarekin. Esporak zuhaitz gazte edo sendotara iristen badira, ez dira gara-

tzen, ezin baitute, egurraren gogortasuna dela eta, *mizelio* edo sare egitura osatzen hasi. Hildako edo gaixotutako aleetara heltzean, berriz, garatzen hasten dira; eta udazken eta udaberri artean hazten dira. Honela, behin ugalketako organoa garatzen dutenean, urtero garai hauetan handitu egiten da. Hazkuntza hau oso nabarmen antzematen da tamaina batetik gorako ardagaien goialdeko azalean, urtero azal geruza berri bat gehitzen baitiote fruitu gorputzari. Ondorioz, moztutako zuhaitzen enborreko eraztunak kontatuz, adina jakin daitekeen bezala, ardagaia- ren gainaldeko azal geruza zenbatuz, onddoarena antzeman genezake.

Erabilera anitzeko perretxikoa

Egungo gizartean onddoak oso ezagunak izan arren, soilik sukalderako interesa dutenak erabiltzen dira. Alde horritatik, ardagaiak jateko onak izan arren, zapore garratz samarra eta mami larrukara izan ohi dute. Hau dela eta, ez dute inolako estimaziorik biltzaileen artean. Baina gure asaba zaharrek ezaguna zuten zertarako erabil zitekeen *perretxiko* berezi hau. Itxuraz, Historiaurretik sua egiteko erabili izan omen da. Antzinako artzainek sua egiteko oso baliabide gutxi



Ardagaiak hartutako pago gaixoa. • ENEKO AGIRRE

zituzten, eta lurzorua hezea zegoenean, oso zaila suertatzen zitzairen berau piztea. Ondorioz, bere ekipajearen artean, ez ziren inoiz falta ardagai azal zatiak eta silexeko bi harri. Ardagaia- ren azala oinarri bezala oso egokia da sua pizteko, denbora luzez eusten baitio berotasunari (txingar edo ikatzaren antzera). Honela, harriak kolpatuz, azal lehorra erretzen hastea lortzen zuten; eta beronen gainean txotxa eta egur zati txikiak ipiniz, sua hartzea lortzen zuten. Bildu ondoren, ardagaia- ren azala eginkizun honetara bideratzeko, gaineko azal gogorra moztzen zioten. Prozesuaren bigarren urratsean, altxatako azala uretan sartzen zuten, eta ordu pare batez biguntzen uzten zuten. Amaieran, uretatik atera eta lehortuz, jada prestatua zegoen pizgailua. Erabilera berezi hau, denborarekin galtzen joan da, eta egun, erabat desagertu da. Dena dela, ardagaia- ren eta suaren arteko

erlazioa aurreko mende arte iritsi da, gure aitona-amonek gogoratzen baitute baserrietako su berria pizteko ematen zitzaion erabilpena. Ardagai egokia bildu eta bedekatu ondoren, kable batez lotu, eta sua ematen zitzaion baserriz baserri joateko. Jokabide hau, baserrietako espiritu txarrak uxatu, eta uza oparoak lortzeko egiten omen zuten. Honetaz gain, azal berezi hau enplastu gisa ere erabiltzen zuten odol jarioak gerarazteko. Beraz, sendagai garrantzitsu bilakatu zen garai artako biztanleentzat. Itxuraz, jantziak eta txapelak egiteko ere oso erabilia zen.

Bioindikatzaila

Aurreko pasartean antzeman dugunez, onddo honek bere garrantzia izan du gure espeziearentzat, baina bere benetako egitekoa baso helduetan gautzen du. Alde batetik, hildako egurraren deskonposaketa azkartzen duelako, luraren ongarriztapenean lagunduz, eta inguruko ale bizientzat elikagai kopurua handituz. Hau da, egu-

argitalpenak

Liburu bilduma

- Euskal Herriko Ugaztunak
- Euskal Herriko Sugeak
- Euskadiko Gaueko Harrapakariak
- Euskadiko Anfibioak
- Euskadiko Muskerrak, Sugandilak eta Apoarmatuak
- Euskal Herriko Biotopo Babestuak
- Urdaibaiko Itsaspeko Flora eta Fauna.

Egilea: Fernando Pedro Perez. **Argitaratzailea:** A.D.E.V.E. (Iraungitze Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkargoa). **Lehen argitalpena:** 2002-ko ekainean.

Espezieen deskribapenetan oinarritzen diren liburu hauek aukera paregabea eskaintzen digute gure inguruko animaliak ezagutu eta beraien egoera jakiteko. Hau horrela izanik ere, tamalez, argazki guztiak zuri-beltzez daude. Gabezia honen konpentsazioa, ordea, prezio egokia, eta dirua zertara bideratuko den jakitea da; ezin ahanztz daiteke, gure hizkuntzan oso argitalpen gutxi daudela alor honetan. Eskertzeko moduko esfortzua.

Oharra: *Liburu hauen salmentatik lortutako irabazi guztiak Euskal Herriko espezie mehatxatuak berreskuratzeko proiektuetarako erabiliko dira.*

rra birziklatzen du, lurzoruko osagai-elikagai bihurtuz. Bestalde, gaixotutako ale zaharren heriotza azkartzen du. Honek, argi izpi berrien sarrera ahalbidetzen du; era berean, zuhaixka gazteei hazten uzten die. Honetaz gain, egurraren usteltzea azkartzeak, gainerako bizidunentzako beste bizileku batzuk agertzea dakar. Izan ere, mota askotariko intsektu, hegazti, eta ugaztun txikiak, enbor zuloak behar dituzte bizi nahiz elikatzeke. Animalia hauek beraien gordeleku eta logelak aurkitu behar dituzte basoan, eta onddo honek egurra bigunduz nahiz zulatuz, aukerak ugartzen ditu. Era berean, animalia txikien presentzia ezinbestekoa da basoko faunaren mantenu eta ugaltzerako, handi- gaioak txikien atzetik ibiltzen direla ezaguna baita.

Beraz ardagaia- k bioindikatzaila gisa ere erabil daitezke, basoek heldutasun bat eduki behar baitute izaki hauek agertzeko. Hau da, nolabait esatearren, basoaren kalitate ekologikoaren berri ematen digute. Hau guztia kontuan izanik, eta egun sua pizteko baliabide ugari edukirik, ea gizakiok ere heldutasun bat agertzen dugun, izaki hau errespetatuz eta bere bizilekuan utziz. Bere egitekoa egokien bertan betetzen baitu, eta ez etxeetako apaingarri gisa beste traste zahar bat bihurtuz.

ENEKO AGIRRE

